



Usurbilgo Udala

2026/02/24

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2026KO OTSAILAREN 24AN  
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Agurtzane Solaberrieta Mesa.

**Zinegotziak:** Ainhoa Arrozpide Landa eta Iratxe Begiristain Otegi.

**Idazkaria:** Leire Ucin Soraluze.

Ez dira bertaratu: Joxe Mari Lizaso Azkonobieta eta Xabat Beloki Segurola.

**1.- 2026KO OTSAILAREN 10EKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.**

Batzarkideek 2026ko otsailaren 10eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- KALEZARKO ESKRIBAENEA ETXEA (BELMONTE KALEA 4) BIRGAITU ETA BERTAN HIRU ETXEBIZITZA EGITEKO UDAL BAIMENA EMATEA (2025OHAN0003).**

Antonio Bras DOS SANTOS RAMOS ABRANTES jaunak, Kalezarko Eskribaenea etxea (Belmonte kalea 4) birgaitu eta bertan hiru etxebizitza egiteko udal baimena eskatu du.

<b>OBRAREN EZAUGARRIAK</b>	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	<b>235.402,95 €</b>
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 1.546,53 €
	Fidantza (%120): 1.855,84 €

**KULTUR ONDAREA – KONTROL ARKEOLOGIKOA**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuko Kultura Ondareko Zuzendari Nagusiak, 2025eko irailaren 22an Belmonte kalea 4an proiektu arkeologikoa gauzatzeko ebazpena eman du. Hitzez hitz honela dio:

**EB-KG-KU-2025-0446**

**2025eko irailaren 22an Kultura Ondareko Zuzendaritzak EBAZPEN hau eman du:**

**GAIA:** Kontrol arkeologikoa



Usurbilgo Udala

2026/02/24

**LEKUA:** Belmonte kalea 4  
**HERRIA:** Usurbil  
**INTERESDUNA:** Antonio Bras Dos Santos  
**ZUZENDARIA:** Alfredo Moraza Barea  
**ERREGISTRO ZK:** 5157 **DATA:** 2025/09/09  
**ESPEDIENTE ZK:** 2025-AEB-072

Aranzadi Zientzia Elkarteko Alfreso Moraza arkeologoak Antonio Bras Dos Santos promotorearen izenean proiektu arkeologiko bat aurkeztu du Belmonte kaleko 4 zenbakian egin behar diren obretan kontrol arkeologikoa eraman ahal izateko.

Lur-mugimenduei dagokienez, eraikuntza-proiektuak honako jarduketa hauek aurreikusten ditu:

- Igogailu berria jartzeko behar den hutsunea egokitzea.
- Egungo hiri-zerbitzuen sarea berritzea (ur- hornidura, saneamendua, elektrizitatea, gasa, telefonia).

Hau dela eta egokia iruditzen zaigu lur-mugimendu horiekin batera kontrol arkeologikoa egitea.

Hori guztia ikusirik dagokion txostena eman dute Departamentu honetako zerbitzu teknikoek, eta bertan diote ez dutela eragozpenik ikusten aurkeztutako proiektu arkeologikoa ontzat emateko.

Azaldutako guztia kontuan harturik, eta dagokion zerbitzu teknikoek egindako txostena ikusirik, dituen eskumenak erabiliz, Kulturako zuzendari nagusiak, honako hau,

### **EBATZI DU**

**Lehena.-** Interes Arkeologikoa aitortzea aurkeztutako jarduketari, eta ondorioz baimena ematea Alfredo Moraza Barea arkeologoari, Antonio Bras Dos Santos izenean jarduten duena, goian aipaturiko proiektu arkeologikoa gauzatzeko. Hala izango da Euskal Kultura Ondareko 6/2019 Legearen 66 artikulua ezartzen duena betetzeko, zuzendaritza nagusi honen esku dagoen arloan, eta beti ere, jarraian aipatzen diren honako baldintza hauek betetzen badira:

- Lanen hasiera eta amaiera GFA-ko Departamentu honi jakinarazi beharko zaio. Hasiera astebeteko aurrerapenarekin gutxienez eta amaiera aste bete pasa ondoren gehienez.
- Baimen honi dagokion txostena paperean eta formatu informatikoan (Word, Pdf) aurkeztu beharko da bere garaian.
- Baimenaren titularrak berak zuzendu beharko ditu jarduera arkeologikoak eta jarduera horiek bertatik bertara ikusi beharko ditu.  
Baldin eta, justifikatutako arrazoiak direla medio, titularrak jarduerak bertatik bertara zuzentzea ezinezkoa badu, horren berri eman beharko dio kasuan kasuko GFAko Departamentu honi eta bere erantzukizuna beste pertsona baten esku utzi beharko du, zeinak titularra ez dagoenean jardueren zuzendaritza bere gain hartzeko zenbait baldintza bete beharko baititu, titulazioari, gaitasun profesionalari eta behar besteko ezagutzari dagokienez.
- Baimenaren onuradunak baimena ematen du berak egindako oroitidazki zientifikoa Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Arkeologia Artxiboan egon dadin baita ere Foru Aldundiaren Web orrian eskegita edonork kontsulta ahal



Usurbilgo Udala

2026/02/24

- dezan.
- Baimenaren onuradunak baimena ematen dio GFA-ri Kultura Zuzendaritza Nagusiari aurkeztu dion materiala zabalkunde lanetarako erabili ahal dezan. Nolanahi ere, argazkien egilea edo jatorria.

**Bigarrena.**- Arkeologi zundaketaren ondorioz aparteko aztarna arkeologikorik azalduz gero, berehala berri emango zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Departamentu honi, bidezko izanez gero, beharrezkoak suertatzen diren neurriak hartu ditzan.

**Hirugarrena.**- Baimen hau hirugarrenen kalterik gabekoa da, eta ez du salbuesten lanak egin aurretik derrigorrezkoak diren beste baimenak eskatu behar izatea, ezta bere edukia aurreikusten.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari. Hortaz, ebazpen honen aurka **GORA JOTZEKO ERREKURTSOA** aurkez diezaiokete interesatuak Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuko Foru Diputatuari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita **HILABETEKO** epean. Dena dela, egoki derirotzen beste edozein aurkez daiteke.

Kultura Ondareko zuzendari nagusia

## TXOSTEN TEKNIKOA

Aurkeztutako Oinarrizko Proiektua eta espedienteko gainontzeko dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, 2026ko otsailaren 17an honako ALDEKO txostena eman du hitzez hitz:

### **BULEGO TEKNIKOA**

**Udal Teknikariak Alkate andreari**

### **OBRA HANDIAK**

### **KALEZARKO ESKRIBAENEA ETXEA BIRGAITU ETA BERTAN HIRU ETXEBIZITZA EGITEKO BAIMEN ESKAERARI TXOSTENA**

---

ESKATZAILEA: Antonio Bras Dos Santos Ramos-Abrantes

ORDEZKARIA: Jose Luis Falcon Gazapo

ESKAERA: Kalezarko Eskribaenea etxea birgaitu eta bertan hiru etxebizitza egiteko obra baimena

ESKAERA DATA: 2025ko ekainaren 3a

KOKAPENA: Belmonte kalea, 4. Usurbil

ESPEDIENTE ZENBAKIA: 2025-OHAN-0003 (HZ.04/2025-197)

AURREKONTUA (PEM): 235.402,95 €

HONDAKINEN KUDEAKETA (PEM): 1.546,53 €

FIDANTZA (%120): 1.855,84 €

---

2025eko abenduaren 10ean, Jose Luiz Falcon Gazapok, Antonio Bras Dos Santos Ramos-Abrantesen izenean, Kalezarko Eskribaenea etxea birgaitu eta bertan hiru etxebizitza egiteko Oinarrizko Proiektu egokitua aurkeztu zuen.

### **AURREKARIAK**

2025eko ekainaren 3an José Luis Falcón Gazapok, Antonio Bras Dos Santos Ramos-Abrantesen izenean, Kalezarko Eskribaenea etxea birgaitu eta bertan hiru etxebizitza egiteko



obra baimena eskatu du.

2025eko ekainaren 23an udal arkitektoak txostena eman zuen, besteak besteko, honako hau adieraziz:

*Kalezarko Eskribaena etxea birgaitu eta bertan hiru etxebizitza egiteko baimen eskaera ontzat emateko proiektua egokitu beharko da honako baldintza hauek kontuan hartuz:*

- *Hiru etxebizitza baimendu ahal izateko, hiru etxebizitzen azalera eraikiak zehaztu behar dira, Arau Subsidiarioek ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatuz.*
- *Ezingo da 1. solairuko 1. Eskubi etxebizitzako komuna kokatzerakoan, jatorriko bolumena handitu.*
- *Herrigunearen Babeserako Plan Bereziak finkatutakoak bete beharko dira, besteak beste:*
  - *Behe solairuko fatxadaren kasuan, justifikatu egin beharko da, 61. artikuluan ezarritakoa betetzen dela, hau da, elementu trinkoen proportzioa ez dela 2/5 baino txikiagoa izango.*
  - *Planoak egokitu beharko dira, hegoaldeko fatxadan balkoiak kenduz.*
  - *Igogailuaren kutxa ezingo da estalkiaren gainetik atera, baldin eta ondo justifikatutako arrazoiengatik ontzat ematen ez bada.*
- *Kultur ondarea babesteko araudia bete beharko da, besteak beste: Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena beharko da, baimen hori lortzeko aurretiaz dagokion proiektu arkeologikoa aurkeztu beharko delarik.*
- *Xehetasun Azterlanaren baldintzak bete beharko dira, besteak beste:*
  - *Estalkien malda % 32koa izango da.*
  - *Kastorenea eraikinarekin partekatutako gailuarraren kota 50,84 m-koa izango da.*
- *Irisgarritasunaren inguruko araudia bete beharko da, besteak beste:*
  - *1. garajearen irisgarritasuna bermatu beharko da.*
  - *Arrapalen maldak zehaztu beharko dira planoetan.*
- *Bizigarritasun baldintzak arautzen dituen 80/2022 Dekretua bete beharko da, besteak beste:*
  - *2. garajeak zuzeneko sarrera izan behar du gune komunitatiko, 3. garajea zeharkatu behar izan gabe. Gainera, irisgarria izan behar du.*
  - *Garbiketa gelarentzat finkatzen diren baldintzak betetzeko hainako espazioa dagoela iritzi da, beraz, harentzako espazioa aurreikusi beharko da.*
  - *Justifikatu egin beharko da trasteleketan 1,5 bizikleta, haurtxoentzako aulki bat eta etxebizitza bakoitzeko mugikortasun mugatuari laguntzeko produktu bat hartzeko aukera ematen dela.*
- *Eraikuntzako Kode Teknikoak ezarritako baldintzak bete beharko dira, besteak beste:*
  - *EKT DB-SI: garaje bakoitzak aipatu dokumentuko 2 Locales y zonas de riesgo especial ataleko 2.2 Taulan finkatutako baldintzak bete beharko ditu.*
  - *EKT DB-SUA: 1.2 Impacto con elementos practicables atala aintzat hartuz, 1 garajeko atearen irekiera norabidea zuzendu beharko da.*
  - *EKT DB-HS: hondakinen gela aurreikusi beharko da, aipatu dokumentuan eta Udal ordenantzan finkatutako baldintzak aintzat hartuz.*

2025eko irailaren 22an Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Ondareko zuzendaritzak ebazpena eman zuen, besteak beste, honako hau adieraziz:

*Lehena.- Interes Arkeologikoa aitortzea aurkeztutako jarduketari, eta ondorioz*



*baimena ematea Alfredo Moraza Barea arkeologoari, Antonio Bras Dos Santosen izenean jarduten duena, goian aipaturiko proiektu arkeologikoa gauzatzeko.*

#### **Erlazionatutako espedienteak:**

- 2022-OHAN-0011: Kalezarko Eskribaenea etxea birgaitu eta bertan bi etxebizitza egiteko obra baimena
- HZ.01/2020-0232: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarierotako A-60 (Kalezar) eremuan kokatutako Kalezarko Eskribaenea eta Kastorenea etxeak eraberritu ahal izateko Xehetasun-Azterketa.
- HZ.13/2020-0130: Eskribaenea eta Kastorenea eraikinen birgaitzean estalkia igotzearen inguruko hirigintza kontsulta.
- HZ.13/2018-0583: Eskribaenea etxea (Belmonte kalea 4) birgaitzearen inguruko galdera.

#### **TXOSTENA**

Aurrekarietan adierazi bezala, José Luis Falcón Gazapok, Antonio Bras Dos Santos Ramos-Abrantesen izenean, Kalezarko Eskribaenea etxea birgaitu eta bertan hiru etxebizitza egiteko Oinarrizko Proiektu egokitua aurkeztu du, 2025eko ekainaren 23ko txosten teknikoan ezarritako baldintzak bete asmoz. Dokumentuak barne hartzen ditu: memoria, planoak, aurrekontua eta hondakinen kudeaketa azterketa. Guztia José Luis Falcón Gazapo arkitektoak izenpetua eta elkargoak ikus-onetsi gabe dago.

Aurkeztutako dokumentazioa eta araudi aplikagarria aztertu eta gero, honakoa esan daiteke:

DOKUMENTAZIOAREN EDUKIA: Aurkeztutako dokumentuak Oinarrizko Proiektu bati dagozkion agiriak jasotzen ditu eta teknikari eskudunak izenpetua dago, beraz, ontzat ematen da. Obrak hasteko, ordea, Exekuzio Proiektua aurkeztu beharko da, teknikari gaituak izenpetua eta dagokion elkargoak ikus-onetsita.

HIRIGINTZA ARAUDIA BETETZEA: Planoak zuzenduta, ikus daiteke 1. solairuko 1. Eskubi etxebizitzako komuna kokatzerakoan ez dela jatorriko bolumena handitzen.

HERRIGUNEAREN BABESERAKO PLAN BEREZIA BETETZEA:  
Aurreko txosten teknikoan finkatutako baldintzak bete dira eta ontzat ematen da.

KULTUR ONDAREAREN BABESA:  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena aurkeztu da, eta ezinbestean bertan adierazten diren baldintzak bete beharko dira.

XEHETASUN AZTERLANEKO BALDINTZAK BETETZEA:  
Xehetasun-azterlanean ezarritako baldintzak betetzen dira.

IRISGARRITASUN ARAUDIA BETETZEA: Eskuhartze honi aplikagarriak zaizkio, besteak beste, Irisgarritasunaren Udal Ordenantza, EKT-DB-SUA eta 68/2000 Irisgarritasun Dekretua. 2025eko ekaineko txostenean ezarritako baldintzak bete dira eta ontzat ematen da.

BIZIGARRITASUN BALDINTZAK BETETZEA:  
80/2022 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak betetzeko aurreko txostenean ezarritako baldintzak justifikatu dira eta hontzat ematen da.



Usurbilgo Udala

2026/02/24

EKT ETA GAINONTZEKO ARAUDIA BETETZEA: EKT DB SI eta DB SUA agiriak betetzearen justifikazioak aurkeztu dira eta ontzat ematen da.

Exekuzio Proiektuan indarrean dagoen eta aplikagarria den araudia bete eta justifikatu beharko da, bai EKT bai aplikagarria den gainontzeko araudia: Behe-Tentsioko Erreglamendu Elektroteknikoa (BTEE), Eraikinetako Instalazio Termikoen Erreglamendua (EITE), etab.

SOINUEN ARAUDIA BETETZEA: Ezinbestean bete beharko da soinuen inguruan indarrean dagoen araudia; zehazki 37/2003 Hotsaren Legea eta hura garatzen duen 1367/2007 dekretua. Etxebizitza barnetan ezingo dira finkatutako soinu baremo gehiengoak gainditu eta beharrezkoa balitz horretarako neurri/obra gehigarriak hartu/egin beharko dira bai proiektuan eta baita obren egikaritzan.

HONDAKINEN KUDEAKETARAKO ARAUDIA: Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 1.546,53 €-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batera (1.855,84 €). Fidantza itzultzeko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuta (112/2012 Dekretuaren 6. artikuluari jarraiki). Oro har, bete beharko dira RD 105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

OBRA BAIMENAREN EPEAK:

- Obra hasteko gehienezko epea: 6 hilabete.
- Obra geldituta egon daitekeen gehienezko epea: 6 hilabete.
- Obra egikaritzeko gehienezko epea: 12 hilabete

EXEKUZIO PROIEKTUA: Obrak hasi aurretik, Exekuzio Proiektua aurkeztu beharko da, dagokion elkargoak ikus-onetsia. Proiektuak txosten honetan ezarritakoak errespetatu beharko ditu.

AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK: Sustatzaileak udal-zerbitzu teknikoei eskatuko dizkie, hala badagokio, udal-zerbitzuen sareekiko loturak gauzatzeko beharrezko baldintzak eta jarraibideak.

ZUINKETA AKTA: Obrak hasteko, hondakinen kudeaketari dagokion fidantza ezarri eta zuinketa akta izenpetu beharko da.

LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA: Gogorarazten da, obraren egikaritzan zehar lurzoru publikoa okupatu behar bada, dagokion baimena lortu beharko dela.

OBRA AMAIERA: Obra amaitu ondoren, Usurbilgo Arau Subsidiarioen araudi orokorraren 16. artikuluari jarraiki, lehen erabilerako baimena lortu ahal izateko, eskerarekin batera honako dokumentuak aurkeztu beharko dira, besteak beste:

- *Bertako zuzendari eskudunak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzirik, lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla (balizko eraldaketak), ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.*
- *Egiaz burututako lanaren planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.*
- *Eraikin edo instalaketen kanpoaldearen argazkiak.*
- *Lanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidatzea, lan eta instalaketen egiazko kostea adieraziz.*



Usurbilgo Udala

2026/02/24

- *Banaketa horizontalaren eskrituraren kopia.*
- *Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren alta.*
- *Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik, elektrairindarraren hornikuntza sareko «Loturako Buletina»ren eta, kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako.*

## ONDORIOA

Goian esandakoa kontuan izanik, Kalezarko Eskribaenea etxea birgaitu eta bertan hiru etxebizitza egiteko baimen eskaerari ALDEKO txostena idazten zaio eta obra baimena ematea proposatzen da.

Hori da behean sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste batzuen kaltetan izan gabe, Udalarari jakinarazten zaiona, dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, sinaduraren datan.  
Udal arkitektoa

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** Antonio Bras DOS SANTOS RAMOS ABRANTES jaunari, Kalezarko Eskribaenea etxea (Belmonte kalea 4) birgaitu eta bertan hiru etxebizitza egiteko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- José Luis Falcón Gazapo arkitektoek 2025eko abenduan idatzitako Oinarrizko Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- **Obrak hasi aurretik**, teknikari gaituek izenpetutako eta elkargo ofizialak ikus onetsitako **Exekuzio Proiektua** aurkeztu beharko da udalaren oniritzia jaso dezan. Proiektuak udal arkitektoaren txostenean ezarritakoak errespetatu beharko ditu.

Exekuzio Proiektuan indarrean dagoen eta aplikagarria den araudia bete eta justifikatu beharko da, bai EKT bai aplikagarria den gainontzeko araudia: Behe-Tentsioko Erreglamendu Elektroteknikoa (BTEE), Eraikinetako Instalazio Termikoen Erreglamendua (EITE), etab.

- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean:**

Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 1.546,53 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.855,84 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera



Usurbilgo Udala

2026/02/24

txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

**1.855,84 €-ko fidantza**, Kutxabankeko ES60 2095 4408 57 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: 2025-OHAN-0003*” jarriaz kontzeptuan.

- **Obrak hasi aurretik**, obrei hasiera ofiziala emateko **ZUINKETA AKTA** izenpetu beharko da. Horretarako beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko da.
- Baldintza partikularrak:
  - Xehetasun-Azterketak ezarritako baldintzak bete beharko dira.
  - Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Ondareko zuzendaritzak emandako txostenean jasotako baldintzak bete beharko dira ezinbestean.
  - Soinuen araudia betetzea. Ezinbestean bete beharko da soinuen inguruan indarrean dagoen araudia; zehazki 37/2003 Hotsaren Legea eta hura garatzen duen 1367/2007 dekretua. Etxebizitza barnetan ezingo dira finkatutako soinu baremo gehiengoak gainditu eta beharrezkoa balitz horretarako neurri/obra gehigarriak hartu/egin beharko dira bai proiektuan eta baita obren egikaritzan.
- AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK: Sustatzaileak udal-zerbitzu teknikoei eskatuko dizkie, hala badagokio, udal-zerbitzuen sareekiko loturak gauzatzeko beharrezko baldintzak eta jarraibideak.
- Obra baimenaren epeak:
  - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - Obraren egikaritza epe gehiengoa: 12 hilabete.
- LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA: Gogorarazten da, obraren egikaritzan zehar lurzoru publikoa okupatu behar bada, dagokion baimena lortu beharko dela.
- Obra amaitu ondoren, Usurbilgo Arau Subsidiarioen araudi orokorraren 16. artikuluari jarraiki, lehen erabilerako baimena lortu ahal izateko, eskerarekin batera honako dokumentuak aurkeztu beharko dira, besteak beste:
  - Bertako zuzendari eskudunak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzirik, lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla (balizko eraldaketak), ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.
  - Egiaz burututako lanaren planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.
  - Eraikin edo instalaketen kanpoaldearen argazkiak.
  - Lanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidatzea, lan eta instalaketen egiazko kostea adieraziz.



Usurbilgo Udala

2026/02/24

- Banaketa horizontalaren eskrituraren kopia.
  - Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren alta.
  - Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik, elektrairindarraren hornikuntza sareko «Loturako Buletina»ren eta, kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
- Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
  - Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak diotenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
  - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
  - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
  - Baimena hau hirugarrengoen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuei eta Kontuhartzaileari emango zaie.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 09:45ak direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**